

Amaitu da ikastaroaren **VI. edizioa**, eta **61 ikastetxetako 2.231 gazte** parte hartu dute bertan

Kutxabankek 11.500 euskal ikasle sartu ditu finantza-munduan 'Bizitzarako Finantzak' programarekin

- **Prestakuntza-eskaintza, bere hasieratik, DBHko 3. eta 4. mailetan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatuta dauden 13 eta 17 urte bitarteko ikasleei iritsi zaie, bai ikastetxe publikoetan, bai itunpeko ikastetxeetan**
- **Gogobetetze globalari buruzko inkesten arabera, jarduera didaktikoa "bikain" eta "ongi" kalifikatu dute, eta % 100 prest legoke errepikatzeke**

2021eko ekainaren 17a. Pandemiak ekarri duen egokitzapen-erronka gorabehera, **'Bizitzarako Finantzak'** programaren **seigarren edizioaren** emaitzak oro har oso onak izan dira, aurreko ikasturteetan baino ikasgela gehiagotara iritsi baita, bai fisikoki, bai online.

2020-2021 ikasturtean DBHko 3. eta 4. mailetako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako 1. mailako **125 ikasgelak** parte hartu dute, eta, guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko **61 ikastetxe** publiko eta itundutako **2.231 ikaslek**.

Sei urte hauetan, **13-17 urte bitarteko 11.500 ikasle inguruk** jaso dituzte finantza-munduko hastapenak, Kutxabankek **ikastetxeekin lankidetzan estuan** egindako proiektu pedagogikoaren bidez eta Aurrezki Kutxen Fundazioaren (Funcas) laguntzaz.


Amaitu den ikastaroaren berritasun nagusietako bat izan da osasun-egoerak formatu birtualetara egokitu beharra ekarri duela, aurrez aurrekoaren eta online eskolen arteko oreka lortzeko. Horrela, **125 geletatik 23k** hasierako bukaerako saioak **online** egitea erabaki dute, eta joko fisikoa ikasgelako joko-saioetan erabili dute.

Zuzeneko esperimendazioan eta jolaserako formatu fisikoan oinarritzen da 'Bizitzarako Finantzak', baina pandemiak azkartu egin du hasieratik izan dituen material digitalen hobekuntza.

Jokoaren garapenean egindako aldaketa handienetako batek, hain zuzen ere, **programaren amaiera**-fasean eragin du; izan ere, fase horretan Kutxabankeko adituek parte hartzen dute, eta zalantzak argitzen dituzte, arazo bakoitzarentzako irtenbide onenak argudiatzen dituzte eta ekimenaren helburuak bete diren edo ez baloratzen dute. Online bertsioak bideokonferentzia batekin ordezkatu du jardunaldi hori. **Kutxabankeko 66 profesionalak** erantzun diete jokoan zehar 2020-2021 ikasturtean sortu diren zalantza guztiei.

Kanpainako materialak eta langileak elebidunak direnez, jarduerak **euskaraz edo gaztelaniaz** egin daitezke.

Kasu gehienetan, **% 66an**, ikastetxeek **euskaraz** eskatzen dituzte saioak. Gaztelaniazko eskolak hautatu zituzten ikasgela gehienek eredu elebidunarekin garatu dituzte benetan, eta gaztelania erabili dute zenbait termino edo azalpen zehatz argitzeko.



Landutako joko-mailari dagokionez, ikasturteko lehen hiruhilekoan **maila aurreratuaren** eskaera handiagoa izan zen, 13 pertsonaia desberdin eta horiei zegozkien finantza-errealitateekin. Hala ere, osasun-egoeraren eta online formatua aukeratzearen eraginez 2020-2021 ikasturtean orokorrean oinarrizko mailaren eskaera handiagoa izan da.

Ikastetxe parte-hartzaileen gogobetetasuna

Duela sei ikasturte abian jarri zenetik, Bizitzarako Finantzak **esperientzia finkatua, sendotua eta oso positiboki balioetsia** da, bai irakasleen aldetik, bai ikasleen aldetik, hezkuntza- eta ikaskuntza-tresna gisa. Horren erakusgarri da, berriz ere, ikasturtea amaitu ondoren talde pedagogikoak egindako **gogobetetasun-inkesta**.

Inkestatutako **guztiek** adierazi dute **jarduera errepikatzeko** interesa. Beren ustez, Bizitzarako Finantzak tresna **bikaina** da matematikako eta ekonomiako kontzeptuak berrikusteko, ingurune erreal eta egunerokoan. Halaber, adierazi dute motibatzailea dela eta asko ikasi dutela simulazio-jokoa erabiliz, oso hurbilekoa gertatu baitzaie kasu guztiz errealak erabiltzeagatik.

Finantzak ikastea jokoaren bidez

"Bizitzarako Finantzak" programaren helburua gazteek finantzen munduko oinarrizko kontzeptuak ulertzea da, helduarorako trantsizioan ezinbestekoak izango zaizkien zenbait gaitasun eta ezaupide lor ditzaten. Horregatik, tresna bereziki eraginkorra da DBHko 3. eta 4. mailako ikasgeletan Ekonomia eta Jarduera Ekintzailearen Hastapenak irakasgaietarako.

Zenbait ikastetxek 'Bizitzarako Finantzak' zeharka erabiltzen dute irakasgai batean baino gehiagotan, hala nola Matematikan eta Gizartean, Ekonomia eta Informatikan edo Teknologian.

'Bizitzarako Finantzak' programa simulazio parte-hartzaileko joko bat da, ikasleei eta irakasleei finantza-gaitasun eta -trebetasunak lantzeko aukera ematen diena. 'Bizitzarako Finantzak'eko jokalariek pertsonaia bat (langabea, ikaslea, enpresaburu txikia, merkataria, ...) aukeratzen dute ausaz, helburu bat duen txartel bat eta hori lortzeko gehienezko denborarekin. Bi premisa horiek ezagututa, hileko diru-sarreraren eta gastuen zerrenda egin beharko dute, planteatutako helburura iristeko aldagai guztiak kontuan hartuta (sarrerak, nahitaezko gastu finkoak, beharrezko gastu aldakorak eta beharrezkoak ez diren gastuak). Jolasaren erronka ez da soilik ilusioa lortzea, baizik eta denboran eustea.

Irakasleek programatik emandako materiala dute ikasleei online formatuan helarazteko, baita jarraipen etengabea egiteko behar duten laguntza teknikoa ere. Jokoan, irakasleak txartel aldakorak sartzen joango dira zirkunstantzietan (positibo edo negatiboekin), horiek abiapuntuko planean eragiten dute eta ikasleak erabakiak hartzera eta aurrekontua hilabetez hilabete egokitzera behartuko dute. Jokoa azken azalpen-saioan amaitzen da, non Bankuko adituek bizitzarako finantzei buruzko kontzeptuak, argi geratu ez direnak, doitzen dituzten.